



EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA-2026

2025-2026 Ikasturtea

Aezkoako Batzarre Nagusiak 2025eko iraila 2026eko abuztua bitartean euskara ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza eskatzeko deialdia egin du. Honakoak dira deialdiko

BALDINTZAK

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea.

- 1.1. Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua hein batean finantzatzea
- 1.2. Dirulaguntza hauek 2026ko jardunaldi ekonomikoko 33500-4800002 (Euskara ikasteko dirulaguntzak) kontu-lerroaren kargura joanen dira. Horretarako 3.500 €ko aurrekontua dago.

Bigarrena.- Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.

- 2.1. Honako baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahalko dute euskara ikasteko beka:
 - 16 urtetik gorakoa izatea.
 - Aezkoako bederatzi herrietako edozeinetan erroldatua egotea, dirulaguntza eskatzen duen egunetik hasi eta, gutxienez, urte bat lehenago, eta bertan bizitzea urtean bederatzi hilabetez.
 - Gutxieneko asistentzia izatea, %80koa.
- 2.2. Diru-laguntza hauetatik kanpo geldituko dira, administrazio publikoko langileak izateagatik, euskarazko birziklapen programetan parte hartzen duten aetzak.

Hirugarrena.- Ikastaro motak.

Diruz lagunduko dira Euskara ikastea helburua duten ikastaro mota guztiak: estentsiboak, trinkoak, barnetegiak... Autoikaskuntzakoen edo eskola partikularren kasuan, Batzarre Nagusiak eskaeren bideragarritasuna aztertuko du eta aurrekontuko partidaren arabera erabakiko du zenbatekoa.

Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

- 4.1. Eskaerak Aezkoako Batzarre Nagusiko bulegoetan aurkeztu ahalko dira **2026eko irailaren 30eko** 12:00ak arte. Epea luzaezina izanen da.
- 4.2. Aurkeztutako eskariak deialdi honetan ezarritako eta zehaztutako baldintza eta dokumentu guztiak izango ez balitu, hamar egun naturaleko epea (luzaezina) emanen zaio eskatzaileari hori zuzentzeko. Epe hori amaituta eskatutakoa egin ezean, eskaera deuseztatuko da, eta, horretarako, aldezturik Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak, 71. artikuluan oinarritutako ebazpena emanen da.

Bosgarrena.- Aurkeztu beharreko agiriak

- 5.1. Dirulaguntza eskaria. Eredua Batzarre Nagusiko bulegoetan eskatu edo/eta bete ahalko da (eredua eskura egonen da bulegoetan eta web-orrian).
- 5.2. Aezkoako edozein udalerritan erroldatuta egotearen ziurtagiria, gutxienez urtebeteko antzinatasuna duena eta ohiko bizilekua gutxienez bederatzi hilabete dituen.

- 5.3. Ikastaroa antolatzen duen entitatearen ziurtagiria, horren ezaugarriak zehazten dituen: iraupena, maila, kostua, hala nola dirulaguntza eskatzen duen ikasleak izan duen asistentzia portzentajea eta egiazko aprobetxamendua.
- 5.4. Matrikularen ordainagiria edo entitatearen ziurtagiria ikastaroaren kostuaren %100 jaso eta ordaindu dela adierazten duena.

Seigarrena.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

- 6.1. Gehienez ere matrikularen kostuaren %50 izanen da. Aurkeztutako eskari guztien artean 2026. urterako ezarritako zenbatekoa (3.500 €) gainditzen bada, aurkeztutako eskari guztien zenbatekoa proportzionalki murriztuko da.
- 6.2. Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada. Edonola ere, eskatzaileek eskatutako edo jasotako diru-laguntza guztien berri emanen diote Aezkoako Batzarre Nagusiari.

Zazpigarrena.- Eskariak aztertu eta ebaztea.

- 7.1. Aurkeztutako eskari guztiak Euskara Zerbitzuak aztertuko ditu. Horrek ofizioz bideratuko ditu ebazpen proposamena egiteko beharrezko dituen datuak zehaztu eta egiaztatzeko bidezko ikusten dituen eginbideak.
- 7.2. Diru-laguntzak presidentearen ebazpenaren bidez emanen dira.

Zortzigarrena.- Ebazpena emateko epea.

- 8.1. Ebazpena hilabete bateko epean eman da, dirulaguntza eskatzeko epea bukatu eta hurrengo egunetik hasita.
- 8.2. Epe hori amaituta, eskatzaileak ebazpenik jaso ez badu, eskaria deuseztatu dela ulertu beharko du.

Bederatzigarrena.- Jakinarazpena.

- 9.1. Dirulaguntzaren ebazpena jakinaraziko zaio eskatzaileari 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak xedatutakoari jarraikiz.
- 9.2. Dirulaguntzaren ebazpena eskatzaile guztiei helaraziko zaie. Bertan espresuki adieraziko da deialdiaren xedea eta bakoitzari emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, eta argitara emanen da Aezkoako Batzarre Nagusiko iragarki ohelean eta web-orrian.
- 9.3. Ebazpenaren kontra, errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da aukeran:
 - a) Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.
 - b.) Gora Jotzeko Errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.
 - c) Berraztertzeko Errekurtsoa, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

Hamargarrena.- Ordainketa.

Emandako dirulaguntza urtea bukatu baino lehen ordainduko da.